

2. FASEA: DIAGNOSTIKOA

AURKEZPENA/JUSTIFIKAZIOA

Dinamika honek komunikaziorako eta ikuspegi- zein sinesmen-trukaketarako gune bat sortu nahi du. Honek eramango gaitu:

- kontzeptuak eta itxaropenak konpartitzera
- beharrak plazaratzera
- gure ikastetxean elkarbizitzaren egoeraren kausak identifikatzera
- proiektua garatzeko indarrak eta inizatibak batzera

Helburua ikastetxean elkarbizitza nolakoa den aztertzea da. Horretarako, elkarbizitza hobetzeko adierazgarriak diren ekintza hezitzaile eremuak analizatuko dira.

Diagnostiko honek errealitatean kokatuko gaitu, ikastetxearen profila zehaztu eta hortik abiaturik hausnarketa-maila eta ekintza-hezitzaile sakonagoak eratzeko prozesu-bideak zabaldu.

Dinamika honen helburua ez da kasuen zerrenda egitea; hori ere interesgarria izan arren, gatazken tipologia zein den eta non gertatzen den, hori zehaztu behar dugu. Gatazkek sortarazten dituzten aldagaiak, askotan hain ikusgarri ez direnak, analizatu nahi ditugu. Hori dela eta, ikastetxearen profila egiteko eta bertako ondoezak zehazteko eremu batzuk proposatzen dira. KAUSAK detektatzea, ez sintomak soilik, lagungarria da elkarbizitza hobetzeko planaren helburuak finkatzeko orduan beharrezko informazioa izateko.

Garrantzitsua da gogoratzea errealitatea konplexua, alde anitzekoa eta sakona dela eta:

- ongizate pertsonalean eta harreman onen garapenean aldagai askok dutela eragina.
- ikastetxe bakoitzean eremu ezberdinetan indar egin beharko dela, hamaika gauza oso ondo egiten baitira eta hori bistaratu gero, abiapuntu interesgarria dela.
- handik edo hemendik hastea garrantzi gutxiko kontua dela, garrantzitsuena hastea dela.

DIAGNOSTIKORAKO 2 JARDUERA HAUEK PROPOSATZEN DIRA:

4.jard. **DIAGNOSTIKOTIK INPLIKAZIOA: non gaude (eremuak: hezkuntza-politika, elkarbizitzaren antolakuntza eta kudeaketa, gatazken transformazioa eta etika) GATAZKEN ETA ONDOEZEN KATEGORIZAZIOA ETA KAUSEN IDENTIFIKAZIOA.**

5.jard. **DIAGNOSTIKOTIK INPLIKAZIOA: non gaude (eremuak: partaidetza, emozioak, sentimenduak eta identitatea, ikaste-irakaste prozesuak, irakaslan-estiloa) GATAZKEN ETA ONDOEZEN KATEGORIZAZIOA ETA KAUSEN IDENTIFIKAZIOA**

4. JARDUERA

4. ERREMINTA: bakarkako lana

4.1) Norberak ikastetxean gertatzen denari buruz duen pertzepzioaren arabera item bakoitzari erantzuna eman (1-4 bitartean kokatu).

4.2) Emaitzak grafikoki kokatu egin eta profila atera.

4.3) Grafikoa aztertu eta hezkuntza-komunitatekideengan ondoeza sortarazten dituzten egoerak islatu.

4.4) Egoera gatazkatsuen kausa posibleak eta eragin-maila zehaztu.

4a ERREMINTA: talde txikiko lana

Taldeak erabakiko du nor izango den dinamizatzailea eta funtzioak gogoratu (lana epe zehatz baten barruan burutu taldekide guztien partaidetza bilduz) ZEREGINAK: kide bakoitzak parte hatuko du: grafikoak konparatu, desadostasun nagusiak arbuia. Azkenik, ikastetxearen egoera islatzen duen grafiko adostua egin. Ondoezak, hauen eragina eta kausak bateratu eta zerrendatu.

4b ERREMINTA: talde handiko lana

Talde txikian eginikoa errepikatu egiten da: talde osoaren grafiko adostua sortu talde bakoitzak desadostasunak plazaratu ondoren eta pauso hauek jarraituz: talde txikien grafikoak bistaratu eta

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

adostasunak lortu. Ondoezak eta kausak. Garrantzitsua da ondoezen eta gatazken azpiko kausak detektatzea hauek izango baitira errealitatea gainditzeko jarraibideak proposatzeko orduan abiapuntu (beharrak, helburuak, ekintza-planak...) Transformazio hau ikastetxearen aspektu sendoetan oinarrituko da.

5. JARDUERA: 5, 5a, 5b

4. jarduerak jarraitu duen prozesu berbera.

Ikasleentzat 4(bis), 4(bis)a y 4(bis)b ERREMINTAK ere eskaintzen dira (4 eta 5 erremintak ordezkatzeko lituzkete), ikasle eta familien aniztasunari erantzuteko bestelako proposamen bezala.

Aipatutako jardueraz gain, fase honen bukaeran **2. FASEAREN AZKEN EBALUAZIOA** aurkituko duzu.

HELBURUAK

1. Errealitate konplexuari buruzko balorazio ezberdinak konpartitu eta konparatu.
2. Hezkuntza-jarduera onak eta beraiek eragiten duten satisfazio maila adierazi.
3. Pertsonen eta taldearen ongizatea hobetzeko beharrak adierazi.
4. Egoera gatazkatsu baten sakoneko kausak topatu.

EDUKIAK

1. HARREMANEN ONGIZATEAN ERAGINA DUTEN EREMUAK
2. ELKARBIZITZAREN ALDAGAI KONPLEXU ETA ANITZEN ARTEKO LOTURA
3. SINTOMETATIK KAUSETARA: JOKABIDE ETA JARREREN ANALISIA.
4. SINTOMA, KAUSA, ONDORIO ETA ERRESPONTSABILITATEAREN ARTEKO BEREIZKETA.

ORIENTAZIO METODOLOGIKOAK

Fasea bere osotasunean ulertzea komeni da. Esaldiak irakurtzea errazagoa izango da gako hauek kontuan izanda:

- Erremintekin lanean hasi baino lehenago komenigarria da prestakuntza-dinamikaren bat egitea (erlaxazioa, taldearekin eta norberarekin konexioa lantzea...)
- Fase honetan erreminta hauek aurkezten dira: 4. err irakasleak, 4. err. ikasleak eta familiak, 4. err (bis) ikasleak, 5. err irakasleak, 5. err familiak eta ikasleak. AZPrekin lan egiteko egokiena aukeratuko da edo beraien behar eta helburuei hobekien hurbiltzen dena egokitu. Erreminta bakoitzak dagokion "a" tresna dauka talde txikian lantzeko eta "b" talde handirako.
- Ikasleen erremintak egokitze beharra dute lehen hezkuntza eta haur hezkuntzako umeekin aritzeko. Iradokizuna: egokitu 4 (bis) erreminta aspekturik garrantzitsuenak marrazkiekin landuz...
- Zazpi eremu definitu dira eta 2. errekurtsioan adierazten dira. (Saio bakoitzaren hasieran aurkeztuko dira)
- Ezkerreko zutabearen egoera optimoak biltzen dira eta eskuinaldekoan ezin txarragoak. Non kokatzen da ikastetxea?
- Zutabeetan ageri diren esaldiak analizatzerakoan komeni da egoera erreala gogora ekartzea erantzunak justifikatzeko.
- Ondoezen edo gatazken kausak aurkitzeko unean behin eta berriro galdetu "zergatik?" egiazkoak, sustraian dauden kausak aurkitu arte. (ikus 3. baliabidea).
- Lan pertsonala eta taldean bateratzeko uneak daude. Balorapen guztiak beharrezkoak dira, kontuan hartu beharrezkoak jardueren garapen onerako eta proposaturiko helburuak lortzeko.
- Asmoa informazioa bildu eta antolatzea da. Bidea eta profila alde aurretik ezarri gabe.
- SAIOA DINAMIZATZEKO OINARRIZKO MATERIALAK atalean saioa aurrera eraman baino lehen ezagutzea gomendagarri diren informazioak agertuko dira. Horrez gain, norbaitek interesa erakutsiz gero errefortzu gisa erabili daitezke. Gainera bestelako proposamen batzuk ageri dira (abestiak, jolas-dinamikak...) taldean giroa piztu eta jarduerari sarrera bezala erabili daitezkeenak.
- SAKONTZEKO MATERIALAK atalean landutako gain inguruan sakontzeko materialak agertuko dira. Jarduera bukatzerakoan dinamizatzailearen ardura izango da emaitzak dagokion AKTAN biltzea eta horrela hurrengo saioan taldeari aurkezteko lana erraztu.

Urteko Elkarbizitza Plana eratze Gida (UEP)

2. FASEAREN GARAPENA

Fase hau 2 saiotan garatuko da, 4.jarduera eta 5.jarduera, bakoitzak 2 ordu eta 10 minutuko iraupena izango duelarik.

4 JARDUERA	Iraupena	Jarraibideak	Baliabideak	Erremintak
<p>→Hasteko 4. erremintaren FOTOKOPIAK banatu (pertsona bakoitzeko bat). Hauek bakarkako lanari dagozkionak dira.</p> <p>→Taldeak egin eta talde bakoitzari banatu 4a erreminta GARDENKIETAN eta KOLORE EZBERDINETAKO ERROTULKI FIN bana.</p> <p>→Dinamizatzaileentzat 4b erreminta ale bat GARDENKIAN.</p> <p>→Jardueraren EBALUAZIO-AKTA EREDUA.</p> <p>→Aurkezpeneko gardenki-proiektorea eta ordenagailua karioarekin prest eduki. POSTITak ere bai.</p> <p>→Dinamizatzaileek 2 eta 3. baliabideak eta oinarritzko materialak kontsultatu.</p>				
<p>DIAGNOSTIKOTIK INPLIKAZIOARA: non gauden eta zer nahi dugun. GATAZKEN ETA EGOZINEN KATEGORIZAZIOA ETA KAUSEN IDENTIFIKAZIOA. Hezkuntza-politika, elkarbizitzaren antolakuntza eta kudeaketa, gatazken transformazioa eta etika</p>	<p>Guztira: 120 min.</p> <p>.....</p> <p>Dinamizatzaileak 20 MIN.</p> <p>.....</p> <p>Banakako LANA 15 min.</p> <p>.....</p> <p>Talde txikiko LANA 30 min.</p>	<p>Fasearen aurkezpena eta UEP barruan kokatu.</p> <p>Lehendabiziko 3 eremuak aurkeztu.</p> <p>.....</p> <p>4.erreminta banatzen dugu</p> <p>Jarduera burutzeko orientabide metodologiko orokorren gakoak eman.</p> <p>4.1. BALORAZIOA: ikastetxearen egoera hezkuntza-politikan, elkarbizitzaren antolakuntza eta kudeaketan, gatazken transformazioa eta etikan.</p> <p>4.2. IKASTETXEAREN PROFILA: Dagokion laukian puntua jarri eta kolorezko marra batez lotu.</p> <p>4.3) Grafikoaren analisisa</p> <p>4.4) ONDOEZAak eta gatazkak. Eskumaldeko zutabea berriro irakurri (4.1 atala) eta norberaren ustez ikastetxean gertatzen diren ONDOEZAak eta gatazkak idatzi. Kausak zehaztu "zergatik?" behin eta berriz galdetuz sakoneko kausak identifikatu arte.</p> <p>.....</p> <p>Gardenkian talde txikiaren profila egin: kide bakoitzaren grafikoa arin-arin konparatu eta ezadostasunak argudiatu (azaldu zergatik uste den hori dela ikastetxearen egoera); kideak entzun eta taldearen profila adostu. (4a1)</p> <p>Taldearen ekarpenak <i>grafikoaren analisisa</i> laukian bildu. (4a2)</p> <p>ONDOEZAak eta gatazkak: bateratze lana. Gatazkak eta hauen kausak ahalik eta zehatzen bildu. (4a3)</p> <p>Arazo global bat zatitu daiteke estrategia zehatzagoak aplikatzeko.</p> <p>Kausa berdinak gatazka ezberdinei atxikitzea ere posible da. Ahal den neurrian saiatu kausak argi eta garbi konkretatzen, horrela esku-hartze eta hobekuntza estrategiak aukeratzekoan gako esanguratsuak maneiatzeko.</p>	<p>UEP FASEAK (hasierako aurkezpena)</p> <p>2.baliabidea Hasierako 3 eremuak</p> <p>3.baliabidea Zergatien teknika</p> <p>.....</p> <p>4.erreminta "Diagnostikotik inplikaziora-ONDOEZAak eta gatazkak.Kausak "</p> <p>.....</p> <p>4.a erreminta TALDE TXIKIAREN PROFILA ONDOEZAAK, KAUSAK. (gardenkia)</p>	

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

4 JARDUERA jarraipena	Iraupena	Jarraibideak	Baliabideak	Erremintak
<p>DIAGNOSTIKOTIK INPLIKAZIOARA: non gauden eta zer nahi dugun. GATAZKEN ETA EGOEZINEN KATEGORIZAZIOA ETA KAUSEN IDENTIFIKAZIOA. Hezkuntza-politika, elkarbizitzaren antolakuntza eta kudeaketa, gatazken transformazioa eta etika</p>	<p>ATSEDENALDIA 10 MINUTU</p>			
	<p>TALDE HANDIKO LANA 40 min.</p>	<p>Bateratze-lana Talde txikietan jarraituriko pauso berberak eman.</p> <p>Ikastetxearen profila sortu, puntu sendoak eta ahulak zehaztu, elkarbizitzaren inguruko hobekuntza-lanari jarraipena emateko elementu egokiak islatu, ONDOEZAak eta gatazkak zein sakoneko kausak definitu.</p>		<p><u>4.b erreminta</u> TALDE OSOAREN PROFILA ONDOEZAak, KAUSAK. (gardenkia)</p>
	<p>Banakako LANA 5 min.</p>	<p>EBALUAZIOA: Pos-it batean erantzun galdera hauek</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Nola sentitu naiz? ✓ Gehien gustatu zaidana. ✓ Hobegarriak 		
	<p>Dinamiza tzaileak (saioaren ostean)</p>	<p>Bateratze-lanean bildutakoa idatzi eta hurrengo saioaren hasieran partaideei aurkeztu (edo ahal izanez gero saioa egin baino lehenago) Garrantzitsua da <u>KAUSEN ZERRENDA</u> prestatzea, hauxe izango baita hurrengo saioaren abiapuntua, Planifikazioa (eta beharren detekzioa) hain zuzen ere.</p> <p>Aktaren laborazioa.</p>		<p>JARDUERAREN <u>AKTA</u></p>

Urteko Elharbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

5. JARDUERA	Iraupena	Jarraibideak	Baliabideak	Erremintak
<p>→ 4. jardueran jarraitutako prozesu bera, aldaketa bakar batekin: hasieran fasea aurkeztu ordez, aurreko saioaren emaitzak aurkeztu.</p> <p>→ Beharrezkoa da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>5. erremintaren</u> fotokopia bana • <u>5a erreminta</u> gardenkian, talde bakoitzeko kopia bat. • <u>5b erreminta</u> gardenkian, kopia bakarra. • <u>Pos-itak</u> • <u>Jardueraren EBALUAZIO-AKTA EREDUA</u> • Gardenki-errotulacadore finak, kolore ezberdinetakoak. • Gardenki-proiektorea, ordenagailua eta kanoia. 				
<p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);"> DIAGNOSTIKOTIK INPLIKAZIOARA: non gauden eta zer nahi dugun. GATAZKEN ETA EGOEZINEN KATEGORIZAZIOA ETA KAUSEN IDENTIFIKAZIOA. partaidetza, emozioak, sentimenduak eta identitatea, ikaste-irakaste prozesuak, irakaslan-estiloa </p>	<p>Guztira: 130 min.</p> <p>.....</p> <p>Dinamiza tzaileak 20 min.</p> <p>.....</p> <p style="text-align: center;">4. jardueran bezala 100 min.</p>	<p>Aurreko saioaren emaitzak taldeari aurkeztu.</p> <p>Azken 4 diagnostiko-eremuak aurkeztu.</p> <p>Gogoratu jarduera nola egin eta zergatien teknika.</p> <p>.....</p> <p>Sekuentzia eta dinamika berbera jarraitu jarduera honi dagozkion erremintekin.</p>	<p><u>2.baliabidea</u> Hasierako 3 eremuak</p> <p><u>3.baliabidea</u> Zergatien teknika</p> <p>.....</p>	<p>.....</p> <p style="text-align: center;"><u>5.erreminta</u></p> <p style="text-align: center;"><u>5.a erreminta</u></p> <p style="text-align: center;"><u>5.b erreminta</u></p> <p style="text-align: center;">JARDUERAREN AKTA</p>

SAIOA DINAMIZATZEKO OINARRIZKO MATERIALAK

- OINARRIZKO MATERIALA 0: on-line bideoa "PCA presentación MERCEDARIAS IKASTETXEA-PILAR BARROSO eta ANA SAINZ / MARIVI FERNANDEZ eta PEDRO TORRES aurkezleak" <http://www.elkarrekin.com/blog/index.php?blog=14&cat=26>
- OINARRIZKO MATERIALA 1: Betaurrekoak, BRUNET Y NEGRO (1986)
- OINARRIZKO MATERIALA 2: Azenarioak, arrautzak edo kafea. Ipuina.
- OINARRIZKO MATERIALA 3: "Documentar la realidad: Un diagnóstico ajustado de la intervención educativa". Antonio Bolívar.
<http://dewey.uab.es/pmarques/dioe/DOEdiagnostico.doc>

SAKONTZEKO MATERIALAK

- SAKONTZEKO MATERIALA 0: EHUko uda ikastaroa "Partaidetza eskola-familia". Mahai ingurua: JuanaMari Maganto, José Luis San Fabián eta Mariano Fernández Enguita. Dinamizatzailea: Neli Zaitegi de Miguel. 2006ko ekainan.
- SAKONTZEKO MATERIALA 1: ISEI-IVEI, Bizikidetasuna Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. <http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/convieus.pdf>
- SAKONTZEKO MATERIALA 2: Haize-arrosa, errealitate konplexua aztertzen. Iturria: http://www.ehu.es/mundilab/pag/eusk/laboratorio/h_pedagogicas/rosa.html
- SAKONTZEKO MATERIALA 3: Kausalitate anitza lantzeko dinamika, argazkia enkoadratzen. Iturria: http://www.ehu.es/mundilab/pag/eusk/laboratorio/h_pedagogicas/imagen.html#
- SAKONTZEKO MATERIALA 4: "Convivencia escolar y género" M^a José Díaz Aguado. Febrero 2006
http://www.juntadeandalucia.es/educacion/portal/com/bin/Contenidos/IEFP/ANDALUCIA_EDUCATIVA/ANDALUCIA_EDUCATIVA/1143619803427_opinion.pdf

BIBLIOGRAFIA, WEB ESTEKAK ETA BESTELAKO BALIABIDEAK

DÍAZ-AGUADO, M.J., (2004), Prevención de la violencia y lucha contra la exclusión desde la adolescencia. Libro 2.

<http://www.injuve.mtas.es/injuve/contenidos.item.action?id=808720134&menuId=>

DAY,CHR., (2006), Pasión por enseñar,

<http://www.narceaediciones.es/>

ISBN: 84-277-1508-0

SEGURA, M. Y ARCAS, M.(2006, 4^aed.) Relacionarnos mejor,

<http://www.narceaediciones.es/>

ISBN: 84-277-1454-8

TORREGO,J.C. (coord.), (2006) Modelo integrado mejora de la convivencia

<http://www.grao.com/libros/busqueda.asp>

ISBN: 84-7827-443-X